



Eskolan, etxean eta komunitatean ildopeda-
gogiko hezitzaile bera
izateko helburua

2015eko azaroaren 6a, 458 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

HIZKUNTZ TRANSMISIOA

Mural erraldoia, arbasoak gogoan

Larunbat honetan eguerdiko 12:00etan Agustin Leitza kaleko mural erraldoia zabalduko dute, herriko artisten artean landu dutena.

Murala mendeurrenaren ekitaldien baitan kokatzen da eta antolatzaileen arabera, "Andoaingo herriaren alegoria bat dugu. Andoainek herri gisa osatzen duen argazki bat, izan garenaren eta garen horren islada. Herri gisa larehun urte ospatzen ditugun honetan, gure arbaso-



Herriko artista ezberdinak elkarlanean aritu dira, muralaren osaketan.

"Herri gisa larehun urte ospatzen ditugun honetan, gure arbasoak muralaren bitartez omendunahi ditugu"

ak muralaren bitartez omendu nahi ditugu". Zeregin horretarako herriko artista ezberdinak elkarlanean aritu dira.

Larunbat honetan zabalduko dute denen begien aurrean, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Ekitaldira andoaindar guztiak gonbidatuta daudela gogorarazi dute Andoaingo udaletxetik.



Auzolana, Oria ibaia garbitzeko

Eguraldia lagun, 18-20 lagun inguru ibai bazterrak garbitzen aritu ziren aurreko larunbatean. Auzolanean aritu ziren, Eguzki eta Burrunba taldeen deialdiari erantzunez.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Igoera fiskalik ez da izango Urnietan

Udalak ahobatez onartu ditu 2016ari dagozkion ordenantza fiskalak.

Laugarren urtez jarraian tasa eta zerga gehienak bere horretan utziko dituzte Urnietan, igoerarik aplikatu gabe. Egoera ekonomikoak ahalbidetzen duen seinale da hori. Maribel Vaquerok ohar bidez adierazi duenez, "2016ari begira, dugun aurrekontu aurreikuspena

honakoa izango litzateke: Udalak kobratzen dituen tasa eta zergekin 4.380.000 euro aurreikusten ditugu, eta Gipuzkoako Foru Funtsatik urtero jasotzen dena 3.915.874 eurokoa izango da gutxi gora-behera".

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagokionez, fatxadak eta teilatuak konpontzeko zerga %3ra jaitziko dute, eta gainberritze energetikoen kasuan %2,5era.

urnietarrei euren etxebizitzatan obrak egiteko erraztasunak eskaini nahi dizkiete".

Beste berrikuntza bat traktzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari lotuta dago. Hobariak eskatzeko garaian interesatuek Urnietan erroldatuta egon beharko dute.

2016rako onartu berri dituzten Ordenantza Fiskalak kontsultagai daude urnieta.eus webgunean.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Urnietako
udala

Ur azpiegitura Andoainen

Ur azpiegitura zaharkituari irtenbidea emateko ez ohiko plenoa egingo dute ostegun honetan, Andoainen. Ur Partzuergoan sartu ala ez, horixe da erabaki beharko dutena.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

S.O.S Sahara

Andoaindik
elkartasuna

KUTXABANK: 2095 5022 10 9112818304

Laguntza ematerakoan UHOLDEA hitza jartzea eskertuko genizuke

Saharako Aaliaren alde

Urnietako Udalak ahobatez Hassanna Aalia Saharako gazteari bere babes eta elkartasuna adierazi dio, Espainiak babes politikoa ukatuz gero Marokora estraditatzeko arriskuan bizi baita. Aalia Saharako herriaren eskubideen aldeko ekintzailea da eta urriaren 6an Burgosen atxilotu zuten. Bertan zabaldu duten prozeduraren bitartez, bere egonaldia arriskuan

dago eta Marokok bere estradizioa eska dezake.

Urnietako Udala osatzen duten hiru talde politikoek –EAJ/PNV, EHBildu y PSE-EE– adierazpen instituzionala onartu dute Hassanna Aaliari eta bere familiari sostengua eta elkartasuna erakusteko eta Espainiako Barne Ministerioari asilo politikoa eman diezaion eskatzeko.

Odol-emaileei omenaldia



Urriaren 25ean Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak Berri-Buruntzako odol-emaileak gogoan izan zituen, Oia-numen egin zuten bazkarian.

Intsignia, diploma eta garai-kurrak eman zizkieten 25, 40 eta 50 aldiz odola eman duten emaileei. Eskualde mailako hitzordua izan zen.

Postontzia: Hondakinak

GEHIEN BIRZIKLATZEN DUTEN HERRIAK EKONOMIKOKI ITO-TZEN JARRAITU NAHI DUTE

EH Bildu, Urnieta

“Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Usurbilgo udalek 262.000 euro zor dizkiote San Markoko mankomunitateari”. Horixe adieraztera ausartu zen duela urtebete Denis Itxaso, San Marko mankomunitateko lehendakari zela. 2015eko uztaillean ordea, EAEko Auzitegi Nagusiaren sententziak horixe bera gezurtatu zuen. Sententzia argia da. San Marko osatzen dugun herriok jasotzen dugun zerbitzuaren araberako ordainketa egin behar dugu, eta ez orain arte moduan, populazioaren proportzioaren arabera. Gainera, gaikako bilketa maila altuenak dituzten herriek, gutxiago birziklatzen duten herrien hainbat zerbitzu ordaintzera behartu gaituzte, eta beraz, Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun, Pasaia edo Usurbil bezalako herrien artean, Donostia, Lasarte-Oria, Erreterria eta Urnietaren hondakinen bilketako hainbat zerbitzu ordaindu ditugu. Herriarrek sortzen dutenaren arabera ordain dezatela defendatu izan dugu beti EH Bilduko kideok. Ez da justua gero eta hondakin gutxiago sortzeko ahalegina egiten duten herriak, esfortzu hori egiten ez dutenen maila berean ordaintzea. Horregatik, gaur hemen San Markoko kide diren herrietako EH Bilduko ordezkariok, PNV eta PSEk hartutako azken erabakia salatzeko elkartu gara:

EAEko Auzitegi Nagusiaren sententzia argia izan arren, PNV-PSEk errekurtsua jartzea erabaki dute. Honekin, herriak ez dagokien dirutza ordaintzen jarraitzea behartu nahi dituzte, agonia luzatu eta gutxiago sortzeko ahalegina egiten dutenak zigortuaz. EH Bildutik argi dugu hau herritarren kontra jarritako errekurtsua dela. EH Bilduren kalkuluen arabera eta sententziak dioena aplikatuz:

- Pasaia 93.000 euro inguru gutxiago ordaindu beharko litzuke urtero.
- Oiartzunek 60.000 euro gutxiago.
- Lezok 36.000 euro gutxiago.
- Hernanik 114.00 euro gutxiago.
- Astigarragak 30.000 euro gutxiago.
- Usurbilek 3.700 euro gutxiago.

Denis Itxasok berak, San Marko Mankomunitateko batzarrean, zenbait herri gaia epaitegietara eraman izanaz poza adierazi zigun, horrela erabakia irmoa eta zaltzarik gabekoa izango zelako. Berak zor horren aurrean “kontundentzia” jokatzeko zuela ere mehatxatu zuen Itxasok. Sententzia eskuartean, honen aplikazioa gaurdanik martxan jartzeko eta bere hitzekin kontsekuente izateko eskatzen diogu Itxasori, egungo hondakinen kudeaketa gastuak injustuak izateari behingoz utzi diezaioten.

Bide honetan, lehen salaketa ezarri genuen udal ordezkariok, abokatuaren bitartez, sententzia kautelariki aplikatzeko eskaria luzatu dugula ere jakitera eman nahi dugu.

Ordenantza fiskalak ahobatez onartu zituzten, ez ohiko plenoan

Igoerarik ez da izango tasa eta zerga berrietan

Igoerarik ez da izango tasa eta zergetan; are gehiago hainbat obra baimenetan beherapenak izango dira. Gobernu taldeko Maribel Vaque-rok eskaini zituen ordenantza fiskalen berrikuntza nagusienak. PSE-EEk bat egin zuen gobernu taldearen proposamenarekin, herritarrengan presio fiskala ez zelako areagotzen. EH Bilduk merkataritza sustatzeko neurri zuzentzaileak eskatu zituen, eta gobernu taldea plan zabalago baten baitan aztertze ados agertu zen. Gauzak horrela, jeltzaleek aurkeztutako ordenantza fiskalak hiru alderdien aldeko botoarekin onartu ziren.



Ordenantza fiskalak aztertu eta bozkatu zituzten urriko azken ostegunean.

Urriaren 29an egin zuten ez ohiko plenoan adierazi zuten, azken lau urteetan ur zer-

bitzuari eta zaborren bilketari lotutako tasa eta zergetan ez da igoerarik aplikatu.

Urriko hitzorduek jarraipena izango dute datozen hilabeteetan

Bake programa herritarren ekarpenekin osatuta



Herritarren ekarpenak jasotzeko hitzordua deitu zuten urriaren 22an, Lekaion.

Urnietako bake programan sakontzeko herritarren ekarpenak jaso nahi izan zituzten Urnietan, urriaren 22an Lekaion egin zuten bileran. Baketik erakundeak bideratu, hoxe lagun bildu zen eta bertatik ekarpenak egiteko borondatea agertu zen. Baketik erakundeak prestutasun hori positibotzat hartzen du. Maialen Lizarralde bilera bideratu zuenaren ustean, “modu eraikitzailean ekarpenak egiteko

“Antolatuko diren ekimenak herritarren ekarpenetan oinarritzea, oso positiboa da bizikidetzaren prozesuetan”

Baketik

borondatea ikusi nuen. Antolatuko diren ekimenak herritarren ekarpenetan oinarritzea, oso positiboa da bizikidetzaren prozesuetan”. Abenduan eta otsailean egun bakarreko ekitaldiak antolatu nahi dituzte, eta urta-

rrilean bi eguneko jardunaldiak. Ekitaldi eta jardunaldi horietan edukien aukeraketa herritarren esku utzi zuten eta horregatik Lekaion bertaratu zirenei bi galdera egin zizkieten: *Zer gustatuko lizaizuke jorratzea egun bateko ekitaldietan? Zer gustatuko lizaizuke jorratzea jardunaldietan?*

Herritarrekin batera, Urnietan bake programa Udal ordezkarien artean edota hezkuntza mailan garatzen ari dira.

MEMORIAREN EGUNAREN ATARIAN, FELIPE IZAGIRRE FRANKISMO GARAICO BIKTIMARI ELKARRIZKETA

“Barruan duzun min hori askatzea terapeutikoa da”

Felipe Izagirrek uste du iraganaren oroimen kritikoaren eta batzuen eta besteen sufrimendua aitortzearen beharra daukala gure gizarteak. Urnietarrak jasan zituen torturagatik eta kartzelaldiaga-

tik testigantza eman zuen, eta Jaurlearitzak biktimatzat jo berri du. Bizipen mingarriak kontatu egin behar direla aldarrikatu du Izagirrek.

Konta al dezakezu zure kasua nola izan den, azken aitortpen hori jaso arte?

Felipe Izagirre: Ez nuke pertsonalizatu nahi gehiegi niregan, baina azalduko dut. Jaurlearitzak, poliziak eragindako biktimen aldeko dekretua zabaldu zuen 2012an, eta orain urte batzuk torturatua izan nintzela aitortu nien dekretuaren kudeatzaileei. Deitu egin zidaten eta adituez osatutako (Manuela Carmena eta beste zenbait) batzorde baten aurrean nire testigantza eman nuen. Batzordeak bere balorazioa egin ostean, Jaurlearitzak ebazpena bidali dit, zeinek aitortzan didan sufrimendu bidegabekia jasandako biktima naizela. Akaso huseria dela irudituko zaio baten bati, baina bere balioa daukate ekinntza horiek. Biziki animatu nahi nuke jendea, iraganean jasandako bizipen traumatikoak konta ditzan.

Garrantzia handia ematen diozu nork bere bizipena kontatzeari. Zergatik?

F.I.: Barruan daukazun min hori askatzea terapeutikoa delako, lehenengo eta behin. Asko ez dela Argentinara ere joan nintzen epaile baten aurrean deklaratzera, frankismoaren aurkako kereilaren barruan, eta orduan sentitu nuen sentimendu askatzaile hori sentitu dut oraingoan ere. Entzuna zarelara ikusteak, ez dauka preziorik. Jendeak barru-barruan darama sufrimendu pertsonala, urteak igaro izan ditu ez instituzioek ez inork entzuten ez ziotela, eta errealitate hori oso injustua eta mingarria izan da. Ezin gara lehenari atxikituta bizi, arrastaka daramatzagun lokarriak askatu behar ditugu. Bada garaia guztiok zerbaiz jarriz dezagun egoera goitik beheara aldatzeko.

Aurrera egin nahi duen gizarte batentzat bortxaz jositako memoriak aingura baten efektua egi-



Felipe Izagirre urnietarra, argazkian erdian.

ten duela diotenei, zer erantzun-go zenieke?

F.I.: Egunotan aditu dugun azken astakeria, Ciudadanos alderdiaren ahotik heldu da: gure memoria historikoa, izatekotan ere 1977an hasten omen da! Memoria historikoa begira jartzea, osasungarria da maila pertsonalean zein gizarte baten zat. Gizakiaren ikuspegitik, balio behar digu autokritika ariketa egiteko eta onartzeko egin ditugun okerrak. Nork bere memoria dauka, nork bere sufrimendu mota ezberdinak, eta guztienak egin beharko ditugu batu, denak baitira gogoa hartzekoak. Gizarteak izugarri irabaziko du eguneroko bizikidetzan, bere egiten baditu memoria horiek guztiak.

Biktimak ezin direla parekatu entzuten ari gara maiz...

F.I.: Biktimak eta sufrimenduak mailakatzea onartezina da. Oso esperientzia sakon eta gogorrak bizi izan dituzten pertsonak, ez daukate parekorik. Denak onartu behar ditugu, besteari entzuten eta enpatia praktikatzen ikasi behar dugu. Alde gizatiarra dago oinarri-oinarrian, denok onartu beharko genukeena abiapuntu gisa. Eta hortik

aurrera, nahi duenak nahi dituen interpretazioak egin ditzala, maila politikoagoan. Memoria etikoa aipatu izan da, eta egokia ikusten dut kontzeptua.

Ezin dena da pertsonen oina-zea arma politiko gisa erabili. “Geuk zuek baino gehiago sufritu dugu” esaten duenak, berretarrek arrazoa daukaten ideia gizarteratu nahi du.

Kontakizunaren lehia bizi omen dugu...

F.I.: Sufrimendu guztiak aitortu behar dira, batzurenak besteenak zapaltzeko tentazioa uxatuta. Zintzoki jokatu. Nahastu gabe oina-zea pertsonala eta ideologia. Ez dago gauza etsigarriagorik biktima batentzat, bere sufrimendua politikoki nola erabiltzen duten ikustea baino.

Nola ikusten dituzu Jaurlearitzaren ekimenak, memoriaren arloan?

F.I.: Memoria, bizikidetzeta eta giza eskubideen institutua 2014ko azaroan sortu zuen, eta itsaropentsu azaldu beharko genuke eman dezakeenaz, zera baitio bere printzipioen artean: “Memoria demokratikoaren kudeaketa libertatea, berdintasuna eta gizatasun duina berres-

kuratze eta lortzeari lotuta dago; memoria giza eskubidea da, ez betebeharra... Memoriaren institutuak gure historiaren azken urteetako hausnarketa beharri erantzuten dio gure giza eskubideen urraketa nabarmena izan baita...”. Azkeneko ehun urte hauetan Euskal Herriak lau esperientzi traumatiko jasan ditu: Gerra zibila, Franco-ren diktadura, ETA eta ETaren aurkako legez kanpoko ekinntzak. Lauak kontuan hartu beharko lirateke nire ustez, eta ikusteko dago hala izango den ala ez.

Elkarte memorialista batzuek zalantzak agertu dituzte, 1936an hasten den frankismoari ez zaiolako behar beste garrantzi ematen. Egiaztatzeko balitz hori, hankamotz geratuko litzateke egitasmoa. Txikitari, Urnietan, monagillo nintzeneko garaian, gerrak pertsona eta familia askorengan utzi zituen arrasto mingarrien testigu izan nintzen; baziren erretorearekin ezin ikusia zeukatenak, frankisten alde jokatu zuelako. Zauriak sendatu gabe geratu ziren, eta gaur da eguna, ez haiei eta ezta ondorengoei ere ez zaiela aitormenik egin...

Urnietan bizikidetzari buruzko jardunaldietan parte hartu izan duzu. Zer moduzko esperientzia izan da?

F.I.: Eragindako eta pairatutako sufrimendua, bizikidetzeta..., gai ugari jorratu zen, eta oso baikortzat joko nuke saiakera. Urnietan pertsona kualifikatuak eta gizarte eragile diren batzuk parte hartu zuten, eta oinarriko adostasun batera iritsi ginela iruditzen zait, besteen oina-zea onartzeko, guztiona azaleratzeko eta oroigarri eta ekitaldien bidez hori dena aitortzeko publikoki. Herri nahiko txikia da Urnietan, denok ezagutzen gara, ez dirudi Andoainen adibidez bizi den giro kutsaturik dagoenik, eta esango nuke baldintzak betetzen direla Udalak sufri-

“Biktima guztien ekarpenak onartu behar ditugu, bata besteari entzuten eta enpatia praktikatzen ikasi behar dugu”

menduaren nolabaiteko mapa osa dezan. Denok bilduko gaituen leku fisiko bat ere egokia izango litzateke, biktimak gogoratzeko. Argentinara joan ginenean berehala ohartu ginen zeinen garrantzitsua den atzera zintzo begiratzea eta halako leku sinbolikoak ezartzea.

Autokritikaren beharra aipatzen da azken aldian...

F.I.: Gizakiok beti egon behar gara pronto autokritikarako. Bizitzako arlo guztietan bezala, pertsonak geure autokritika egin eta pareko horrekin hizketan jartzea, aurrera egiteko modurik egokiena da hori. Kontua da autokritika eskaerak ez direla orokorrak, eta arlo horretan ere manipulazio eta polarizazio politikoa antzematen dela agudo. Badirudi autokritika beste kontua dela, ez norberarena. Itinerariy filosofoaren hitzekin bat nator, “ez genuke zain egon behar besteak noiz egingo duen autokritika, guk egin dezagun”.

Nahiko ezkorra naiz gai honetan, ze adibidez, estatuak ez du keinurik txikiena ere egin torturak izan direla onartzeko. Gertutik ezagutzen dudana Argentinako kereila datorkit burura: *Billy el Niño* eta Muñecas komisarioak ederki nabarmendu izan dira giza eskubideen urraketatik. Epailearen aurrean, orde, horiek ez dute bere burua kritikatzeko asmorik azaldu, eta Espainiako instituzioek ere ez dute hatz bat mugitu biak horretara behartzeko.

Ez da batere erraza izango guztiok egin beharreko autokritikaren lokarri hori askatzea. Urteak, belaunaldiak..., ez dakit ze igaro beharko den...

Adierazpen bateratua Memoriaren egunaren atarian

Urriko osoko batzaraldian Memoriaren egunari lotutako adierazpen instituzionala eztabaidarik gabe eta ahobatez onartu zuten Udal ordezkari-tza duten bost alderdiek. Adierazpen laburra da, baina mamitsua: “Etorkizuneko bake eta bizikidetzak eskatzen dute indarkeriaren bidegabakeria aitorzea, egindako mina eta

“Biktima guztiek merezi baitute egia, justizia, memoria eta erreparaziorako eskubidea”

biktimen duintasuna onartzea, biktima guztiek merezi baitute egia, justizia, memoria eta erreparaziorako eskubidea”.

Ez ohiko plenoa ostegunean, ur hoditeria hizpide hartuta

Urriko plenoa ezusteko handirik gabe igaro zen, eta ikusmina ostegun honetako ez ohiko plenoan jarrita dago. Andoaingo Udal Ur partzuergoan sartuko den ala ez orduan erabakiko baita. Ur azpiegitura eta hoditeria zaharkitua berritzeko, EH Bilduk agintaldi honen hasieran mahai gainean bi proposamen jarri ditu. Lehena, Ur Kontsorzioan sartu eta hamar urtez ur zerbitzuaren esleipena erakunde horri lagatzea da. Trukean, Kontsorzioak azpiegitura osoa berrituko luke eta Udalari inbertsioetarako diru partida bat eskainiko lioke. Bigarrena, mailegu bat eskatu eta zerbitzua Udaletik kudeatzen jarraitzea da.

EH Bildu kontsorzioaren aldekoa da eta, aldiz, jeltza-leek aspaldi agertu zuten horren aurkako jarrera. Sartu ala ez sartu, giltza sozialisten botoaren baitan egongo da. Azken orduko aldaketa-rik ez badago, EH Bildu, Ganimos eta Irabazi alderdiak Ur Kontsorzioan sartzearen aldeko dira. Baina hiruren artean batzen dituzten 8 botoak ez dira nahiko izango, horrelako erabakia hartzeko gehiengo osoa behar baita (9 boto). Beraz, auzia PSE-EE-ren botoak erabakiko du. Ostegun honetan –azaroak 5– iluntzeko 19:00etan hasi-ko da ez ohiko plenoa.

URRIKO BATZARRALDIA

Adostasuna lortu zen aztergai gehienetan: Euskal fonda, gazte lokalei buruzko Udal ordenantza, herritarren segurtasunerako legea eta Daniel Hernando, Memoriaren egunari buruzko adierazpen instituzionala...

Irabazik proposatuta, udalbatzak ahobatez onartu zuen Espainiako gobernuari Herritarren Segurtasunerako legea –“Mozal legea” bezala

ezagunagoa dena– kentzeko eskaera. Aldi berean, kartzelan sartzeko zorian den Daniel Hernandori elkartasuna adierazi zioten. Andaluziako herritar horri gobernuaren neurri murriztaileen aurka 2012an pikete batean parte izana leporatzen diote.

HERRITARREN HITZA

Galde eta erreguen tartea ohikoa baino parte hartzaileagoa izan zen; hiru pertsonak hartu zuten hitza, nork bere arazoa eta eskaerak azaltzeko. Gazte Lokalen ordenantza arautzailea dela eta, zaratagatik helegite bat aurkeztu omen du herritar batek. Hitza hartu zuenak helegitea aurkeztu duen pertsona horren jokabidea kritikatu zuen, kontraesankorra delakoan. Izan ere, pertsona hori bera goizean goiz herrigunean ibiltzen baita bere ibilgailuarekin, motor hotsarekin eta musikarekin zarata handi samarra ateraz.

Bigarren herritarrek kale gorrian gera daitekeen Andoaingo familia bat hartu zuen hizpide. Hiru seme-alaba txikiko familia da, eta babesa eskatu zion Udalari. Ana Carrere alkateak Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzera gonbidatzearekin batera, inor kalean gera ez dadin Udalak ahal duen guztia egiten duela erantzun zion.

Azkenik, gizonezko batek, emakumeen aldeko eskubideak aldarrikatu eta genero indarkeria gaitzetsi ostean, bazterkeria jasaten duten gizonezkoen aldeko neurriak hartzea eskatu zuen. Gizonezko biktimak babesteko Berlinek ireki den egoitza jarri zuen eredutzat. Bere kasu pertsonala azaldu zuen: semea eskizofreniaren gaitzak jota bizi da, eta ama jotzeagatik preso dago kartzelan. Bera ardura-tzen da semearen egoeraz.

Azaroak 10, asteartea, bilera deitu dute Urigain kultura etxean

Gure Esku Dago taldearen deialdia datorren asterako

Andoaingo Gure Esku Dago taldeak “Eskura” prozesua aurkezteko bilera deitu du Urigainen, datorren azaroaren 10erako. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, udazken honetan martxan jarri den ekimen berriaren argibideak eskainiko dituzte. “Ekainaren 21ean erabakitzeako eskubidea aldarrikatu genuen ozenki. Urrats horri jarraituz, *Eskura* prozesua martxan jarri da, eskutik eskura, hautesontzitik erabakira iristeko bidea. Bide hori denon artean egin behar dugu”. Eta asmo horri eutsiz, datorren asteartean, aurkezpen ekitaldia egingo dute. Bilera laburra izango dela diote, ordu erdikoa edo.



Udazken honetan martxan jarri den *Eskura* prozesuaren berri emango dute.

Andoaindo Gure Esku Dago taldeak herritarrei eskerrak eman nahi dizkie orain arteko inplikazioagatik, “erabakitzearen aldeko ekimen erraldoia antolatu zen ekainean, eta oihal

katean zein Anoeta estadioko ekitaldian Andoaingo herritarren parte hartzea ederra izan zen. Hori guztia, guztion ahalegina eta lanari esker izan zen. Beraz, zorionak guztioi!”.

Gazte Lokalean tailerra eskainiko dute, ostiral honetan

Sukaldaritza osasungarria

Luar Gullian eta Saioa Amundarain gazteak Mondragon Unibertsitatean Lidergo Ekin-tzaile eta Berrikuntzako gradua ikasten dabilta eta sukaldaritza osasuntsua sustatzeko egitasmoan **Basque Culinary Center**reko Javi Rivero eta Imanol Zubelzurekin elkarlanean ari dira, “proiektu honen helburua gazteengan elikadura osasungarriaren inguruko kontzientzia sortzean datza bertako produktuak sustatuz”. Aldi berean gazteetatik sukaldean trebatzeko aukera erakutsi



nahi dute, horrek dakarren autonomia sustatuz. Tailer ezberdinak ematen ari dira Gipuzkoan barrena.

OSTIRAL HONETAN

Gazte Lokalean ostiral honetan arituko dira, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Aurkako botorik gabe onartu ziren ordenantza fiskal berriak

Tasa eta zerga berriak

2016an ordenantza fiskal berriak aplikatuko dira, gobernu taldearen proposamena oposizio osoaren abstentzioarekin onartu eta gero. Udalak aplikatuko dituen tasa eta zerga gutxi batzuetan igoera aplikatuko da, gainerakoak bere horretan mantenduz. Guztien artean, azpimarratzekoa da zaborren eta ur zerbitzuen igoera. 0-30 m³ tarte horretan kontsumitzen duten etxebizitzatan ez da igoerarik aplikatuko. Kontsumo handiagoetan, aldiz, igoera progresiboa izango da:

Kontsumoa	2015	2016
35 m ³	51 euro	52 euro
40 m ³	59 euro	61 euro
45 m ³	67 euro	70 euro

Zer nolako igoera izango du horrek merkataritzan eta ostalaritza sektoreetan? Hurrenez hurren, 30 metro kubikotik gorako kontsumoetan 2-4 eta 5-10 euroko igoera.

Industrian igoera 20-300 euro artekoa izango da, kontsumoaren arabera beti ere.

Udalak, orain arteko datuak eskuetan, ur zerbitzuan

300.000 euroko galera izan zuen. 2016an tasa berrie-kin 115.000 eurotan murriztu nahi dute kopuru hori.

ZABORRA

Etxebizitzetara aplikatutako igoera, urte osorako, 4 eurokoa izango da.

BESTE TASA ETA ZERGA BATZUK

Oro har bere horretan utziko dituzte IBla, ibilgailuaren txartela, jarduera ekonomikoena edota obrena. Igoerarik ez da aplikatuko kasu horietan.

Hemeretzigarren edizioa antolatu zuten urriaren 24an

Herrien eguna, Andoaingo folkloreak erakusgarri

Andoaingo Udalak "Herrien eguna"ren XIX. edizioa bideratu zuten Hogar Extremeño, Triana eta jaian parte hartu zuten herriko taldeen lana txalotu du.

Eskertzak horrela dio: "Urriaren 24an Herrien eguna XIX. edizioaz disfrutatze-ko aukera izan genuen. Udal gobernuak lehen lerro hauek aprobetxatu nahiko lituzke antolatzaileei, Hogar Extremeño Miajon de los Castuos eta Asociación cultural andaluza Triana-ri, gure zorion agurrik be- roena helarazteko. Egun alai eta koloretsua antolatzeaz gain, Andoaingo esentziaren parte diren herriei merezitako omenaldia eskaini zitzaien. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu egun horretan parte hartu zuten herriko elkarte eta talde guztiei ere. Aurtengoan, gainera, ahalegin berezia egin da Herrien eguna Andoaingo errealitate soziokulturalaren erakusleho izateko; gure herria oso aberatsa da kultur aniztasunari dagokionez, eta espresio horiek guztiak elkar-lanean ikustea oso poztekoa da. Ez dugu ahaztu behar, gainera, gure herriak burujabetza lortu zuenetik 400 urte ospatzen ditugun honetan, horixe izan dela azpimarratu nahi izan den balore nagusia: Andoa- in herri eta jatorri ezberdine- tatik etorritako pertsonen osa- tzen dugula, eta guztiok jakin



Extremadura eta Andaluziako jakiez gozatzeko aukera izan zen.

Udalak Hogar Extremeño, Triana eta jaian parte hartu zuten herriko taldeen lana txalotu du

Aurtengo Herrien egunak Andoaingo errealitate soziokulturalaren erakusleho izateko helburua zuen

dugula gure eta ondokoaren tradizio eta kultura errespetatu- z, elkarrekin bizitzen eta ba- tak besteaz disfrutatzen.

Pasa den larunbatean herri-

ko kaleak alaituz jardun zuten elkarte eta talde guztiak animatu nahi ditugu bide berean segi dezaten, gure herriko kul- tura elikatuz eta aberastuz".



Azelain ballet taldeko kideak taula gainean.

Musika familian tailerra, larunbat honetan

2014an jaiotako haurrei zu- zendutako saioa, azaroaren 7an izango da, ikastolak Bazkardon duen eraikinean.

Haurren estimulazio-goiz- tiarra behin eta berriz entzu- ten dugun kontzeptua da. Es- timulazio hori erabat baliaga- rria da haurraren garapen kognitiboari begira. Musika da, esaterako, gure haurrak estimulatzeko baliabideetako bat. Aita Larramendi Ikasto- lak "Musika familian" izeneko tailerra antolatu du eta berta- ra "2014an jaiotako haur an- doaindarrak eta hauen fami- liak gonbidatu nahi ditugu

Ikastolak Bazkardon duen egoitzara. Tailer honek ordu- bete inguruko iraupena izan- go du, Musikhazi Gipuzkoako musikoterapia elkarteak es- kainiko duena".

Azaroaren 7an izango da, larunbatez, Bazkardoko egoitzan, goizeko 10:30etik aurrera. Bertaratu nahi iza- nez gero, aurretiko izen- ematea gomendatzen da. Horretarako, nahikoa da Ikastolako idazkaritzara dei- tzea, 943 593 525 telefono zenbakira, edo [www.andoai- nikastola.eus](http://www.andoainkastola.eus) webgunean izena ematea.

Andoaain iritsi berrientzat



Gazte Lokalean izango dute, astearteetan arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea herriko hiru ikastetxeetan edota euskara zerbitzuan egin daiteke.

Euskara zerbitzuak iazko ekimenaren balorazioa egin du, "2014-2015 ikasturtean 15 gaztek hartu zuten parte proiektuan, 3 penintsulatik etorriak, 3 Europatik, 7 He- go Amerikatik eta 2 Afrika- tik. Gazteek ikastetxeetan bertan eman zuten izena.

Euskal kulturara hurbil- tzeke eta bertara integratze- ko saioak antolatu ziren Gazte Lokalean maiatza bi- tartean, eta balorazioari be- gira, aipatzekoak dira gazte- en euskara gaitasunaren ho- bekuntza eta gazteen arteko harremanak oso onak eta aberasgarriak izan zirela".

Jostailu bilketa

Salkin merkatari eta ostalari elkarteak behar gehien dute- nen artean banatzeko, jostai- lu bilketari ekingo dio. Jostai-

luak Amantegi mertzerian, Izea lurrindegian eta Xare oinetako dendan utz daitezke azaroaren 15a baino lehen.

Mendeurreneko komikia



"Iraganera bidaia", mende- urrenaren harira Udalak argita- ratu duen komikiaren izenbu-

rua da. Batik bat, 5. eta 6. mailako gazte eta nerabeei zu- zenduta dago, eta Andoaingo Udalak, hain zuzen, hainbat ale bideratu ditu herriko ikas- tetxeetara bertan landu deza- ten. Edonork disfruta dezake bertan jasotzen diren pasarte- ez, beraz, jendarteari ere za- balduko zaio bere salmenta Ernaitza, Stop eta Delgado li- burudendetan 7 euroren tru- ke. Komikian lau gazte denbo- raren makinan sartuko dira, 1615. urtera bidaiauz.

ODOL EMAILEEN BILKURA



Urriaren 25ean Urnietako Oianume eskualdeko odol-emaileak deitu zituzten, hainbat kideren lana aitortzeko. 25, 40 eta 50 alditan odola eman dutenei oroigarri bana eman zieten. Irudian, Andoaingo ordezkariak.

Larrialdi laguntza eskatu dute Saharako biztanleentzat



Urrian euriteen eraginez, kanpaldien egoera oso kaskarra da.

U HOLDEEN ONDORIOZ, ETA SAHARAR ERREFUXIATU GUNEE-TARA LARRIALDI LAGUNTZA

Hurria-Sahara

“Gipuzkoan Saharar herriaren alde lanean dihardugun elkarteok, eta Andoaingo Hurria-Sahara elkarteak honako idatzi hau zabaldu nahi dugu: Tindufen dauden sahararren kanpamenduetan urrian zehar pairatu dituzten eurite bortitzek adobeazko eraikuntza ugari suntsitu dituzte eta kalte ugari eragin dituzte familien artean elikagaiak eta etxeko lanabesak galdu baitituzte.

Saharar Ilargi Erdi Gorriak deialdi bat zabaldu die laguntza ematen duten herrialdeei, elkarte internazionaliei, GKEei, elkartasun mugimenduei, gizarte orokorrari eta saharararen lagun guztiei, ahalik eta azkarren herri sahararrari laguntza banatu ahal izateko laguntza ekonomikoa biltzeko eskara zabaldu dugu.

Aipatu euriteek kalte handiak sortu dituzte. Kalteak batez ere, lehenik ahulak ziren eraikuntzetan eta haimeetan izan dira, hauek sahararren babesleku bakarrak direla gogoraraziz. Familia askok zuten gutxia galdu dute,

baita gordeta zuten elikagai guztiak ere. Jada azken hila-beteetan kanpo laguntzaz iristen zitzairen laguntza gutxi bazuten, ekaitzaren ondorioz dena galdu dute.

Bertan zuzenean lanean diharduten Saharar Ilargi Erdi Gorriko lan taldeek adierazi dutenaren arabera, ia biztanle guztiak izan dira kaltetuak, baina oraingoz ez da giza galerarik. Material galerak aldiz ugariak izan dira.

Gipuzkoako saharar herriaren lagunen elkarteok, eta Andoaingo Hurria-Sahara elkarteak bat egiten dugu eskaera honekin eta adierazten dugu lanean dihardugula ahalik eta ekarpen handienak egiteko.

Horretarako Gipuzkoako udalei laguntza ekonomikoak eskatuko dizkiegu, baita lagundu dezaketen erakunde, elkarte edota lagunei ere.

Horretarako kontu korronte ezberdinak zabaldu ditugu. Biltzen den guztia Saharar Ilargi Erdi Gorrira zuzenduko dela adierazten dugu.

Kutxabank:

2095 5022 10 9112818304

Laguntza ematerakoan UHOLDEA hitza jartzea eskertuko genizuke”.

Eguzki eta Burrunba talde ekologisten eskutik

Ibai ertzak auzolanean garbitu zituzten



Ibai ertzak garbitzeko 18-20 lagun bildu zen.

Oria ibaiaren bazterretan pilatzen den zaborra garbitzeko deialdia egin zuten Eguzkik eta herriko gazte osaturiko Burrunba gazte taldeak. Lehen ere egin izan dituzte garbiketa lanak, auzolanean beti ere. Moduari garrantzia berezia eman zion Eguzkiko Garikoitz Plazaolak, Oria ibaiaren bazter batean Aiurri astekariari egindako adierazpenetan: “Ibai ertzak garbitzeko hamazortzi-hogei lagun bildu gara, auzolanean egiteko. Herrian, komunitatean arazoei irtenbidea emateko modua bada auzolana, eta hori aldarrikatu nahi dugu. Jarduera horren herritarrak ere arazoei irtenbidea emateko prest gaudela erakutsi nahi dugu. Bide horretan, ibaiak garbiago egon daitezen administrazio ezberdinei euren lana behar den bezala egitea eskatu nahi diegu. Andoaingo egoera, gaur egun, paradoxikoa da. Andoaingorik oso gertu ur araztegi bat dugu, Adunako ibarrean zehazki. Eta, aldiz, Andoaingo ur zikinen erdia zuzenean ibaira isurtzen ari gara. Alegia, gaur egun ibaiak kutsatzen ari gara. Beraz, herritarrok ahalik eta gutxien kutsatzeko kontzientzia hartu behar dugun bezala, administrazioak ere beharrezko diren bitartekoak jarri behar ditu. Urte hauetan dirua edo aurrekontu falta jarri dute argudio bezala, baina azken hamabost urteetan beste zenbait kasuetarako dirua lortu da. Ondorioz, Andoaingen ur zikinak ibaira botatzen jarraitzea



Garikoitz Plazaola Eguzki taldeko kidea.

“Komunitatean arazoei irtenbidea emateko modua bada auzolana, eta hori aldarrikatu nahi dugu”

“Andoaingo ur zikinen erdia zuzenean ibaira isurtzen ari gara. Alegia, ibaiak kutsatzen ari gara”

ulertzen ez dugun zerbait da”. Auzolana deitzeko hedabideetara igorri zuten gutunean adierazi bezala, Europar Batasunak 2005erako bi mila biztanletik egin behar direla agindu zuen. Eguzkik egin duen salaketarekin,

Andoaingen hamar urteko atzerape-narekin ari da. Eta epe labur edo erdira inolako egitasmo jakinik gabe, gainera.

Lanak amaituta, merienda batekin amaiera eman zioten auzolanari.

Auzolana, bideoa: Aiurri.com



Tamaina handiko hondakinak pilatu zituzten Oria ibaiaren ertzean.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

MARTXOAN HASI ETA URRIRA BITARTEKO LANEN BALORAZIOA

Burdinaren urteko batzarra, esku bete lan

2015eko urteko bigarren batzarra ospatu zuen Burdina taldeak, aurtengo kanpainan zehar burutu dituzten egitasmoen berri emanez. Burdinako bolondresak eta jarraitzaileak, Andoaingo herritarrak

eta hainbat Udaletako zein Aldundiko ordezkariak Goikoplazan bildu ziren larunbat eguerdian, eta trikitilarien doinuekin batera, Kale Nagusian behera kalejiran abiatu ziren.

Juanita Alkain plazan prentsaurrekoa egin zuten ondoren. **Joxe Ramon Berrondo** Burdinako kidea, **Marijo Telleria** Aldundiko Kultura zuzendaria, **Ana Carrere** Andoaingo alkatea, **Pili Legarra** Asteasuko alkatea eta **Amaia Azkue** Berastegiko alkateak osatu zuten mahaia. **Lopez de Munian** anai-arrebek txalaparta jo, **Urkio** dantzariak agurra dantzatu eta **Ion Belokik** bertsoa bota ostean Burdinako bozeramaileak batzarrera agertutakoak agurtu zituen: ordezkari politikoak, Burdinako kideak, herritarrak, eta baita taldearekin urtean zehar elkarlanean aritu diren arkeologoak, hala nola, **Josu Etkezarraga**, **Jaione Iriondo**, **Alfredo Moraza**, **Xabi Alberdi** eta **Manu Izagirre**.

Oraindik orain herritar batekin edukitako elkarriketaren berri emanez hasi zuen agerraldia: “Burdina taldeko kideek zerbait irabaziko genuela esaten zidan lagun horrek, ez zela posible bestela. Hiru irabazi mota bereganatzen genituela erantzun nion: batetik, lanerako talde giro polita; bestetik, arkeologo trebeekin batera arietzeko pribilegioa, eta hirugarrenik, herritarren eta instituzioen aurrean errespetua irabazia daukan Burdina taldearen kamiseta harro jantzi ahal izatea”.

Marijo Telleriak, gipuzkoar guztien izenean eta bihotz-



Goikoplazatik Juanita Alkain plazara jaitsi ziren Burdinako kideak, kalejiran.

Burdinak egindako urteko balantzean, herriz herri garatu diren makina bat egitasmo azaldu zituzten

bihotzez eskerrak eman zizkien Burdinako bolondresei, borondate hutsez jartzen direlako herriaren eta herriko ondarearen zerbitzura.

Ana Carrere ere Burdinako boluntarioak eduki zituen go-goan: “erakunde publikotik ematen diren dirulaguntzarik gabe seguru asko Burdinari



Zutik, Pili Legarra Asteasuko alkatea eta Amaia Azkue Berastegiko alkatea. Eserita, Marijo Telleria Aldundiko Kultura zuzendaria, Joxe Ramon Berrondo Burdinako kidea eta Ana Carrere Andoaingo alkatea.

zaila egingo zitzaiola burutzen dituen egitasmo guztiak burutzea. Baina argi eduki behar duguna da zuen ahaleginik gabe, ezinezkoa litzatekeela gaur aurkeztu dituzuen egitasmo guztiak egitea. Zuek merezi duzue protagonismoa”.

Burdinak martxoan aurkeztu zituen egiteko lanak, eta orain-

goan egindakoa zerrendatu zuten. Batzarra bukatuta kalejirari jarraipena eman zioten, eta egunari amaiera emateko lagun giro gozoko bazkarian bildu ziren guztiak, Kotoi elkar-tean. Burdinak egindako urteko balantzean, herriz herri garatu diren makina bat egitasmo azaldu zituzten.

JARDUERAK

Andoain

- Baltzuketako (Leizotz) karobiaren berreskuratzearen bigarren fasea.
- Ortzatza karobiaren piztuera.
- Olazar burdinolaren indusketa arkeologikoa.
- Axidengiko lixiba-tokiaren berreskuratzea.
- Aurretik berreskuratutako ondare historikoaren mantenua.
- Bisita gidatu irekia Euskaldunako mendizaleekin batera, Belkoain mendian dauden ondare historikoak ezagutaraziz.

Orexa

- Zentral hidroelektrika baten garbiketa eta publikoari erakusteko berreskuratze lana.

Elduain

- Sales izeneko karobiaren berreskuratzea eta aurreko etxolaren teilatu berritzea.
- Sales erreka errotaren berreskuratzearen bigarren fasea.

Berastegi

(Leitzaran bailara)

- Mustar zahar burdinolaren indusketa arkeologikoaren 4. fasea.
- Mustar inguruko haizeolaren indusketa arkeologikoa.

Gaztelu

- Uli mendi magaleko ganadu babesleku bateko indusketa arkeologikoa (“majada” deiturikoa). Handik gertu, kobazulo baten sarreran, brontze aroko buztinezko lapiko baten aurkikuntza 2014an.

Asteasu

- Urzuriaga baserriko karobiaren berreraiketa.
- Urniategi errotaren mantenu lanak eta informazio panelaren osaketa.

Agerraldiaren bideoa eta argazkiak aiurri.com webgunean.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



BURUNTZALDEA

“Hizkuntzaren transmisioak balio asko dauzka”

Hezkuntza Topagune izateko sortu zen Hik Hasi, duela 20 urte; hezitzaileei zuzendutako Hik Hasi aldizkaria eta formazioa ditu bizkarrezurrak. Orain hiru urte eta erdi, berriz, Hazi Hezi aldizkaria ar-

gitaratzen hasi ziren. “Ikusi genuen aldatzen ari zirela gizartea, familiak... eta gurasoek kezka asko izaten zituztela”. Heziketan eta hazieran, euskarazko beste baliabide bat sortu zen horrela.

Joxe Mari Auzmendi hernaniarra da Hik Hasiko koordinatzailea, eta **Arantzazu Muñoa** irakasle eta kazetari zeraindarra, berriz, lan taldeko kideetako bat. “Hutsuneak ikusten ditugun tokietan saiatzen gara”, diote. Horrela sortu zen hezitzaileei zuzendutako Hik Hasi proiektu pedagogikoa, eta horrela sortu zuten, duela 3 urte, gurasoei zuzendutako Hazi Hezi aldizkaria. Guztia, euskaraz.

Hain zuzen, 2016an Gipuzkoan jaiotzen diren haur guztien etxeetara Hazi Hezi aldizkariaren ale berezi bat bidaltzeko asmoa dago.

EZINBESTEKO HIRU HANKA: ETXEA, ESKOLA, KOMUNITATEA

Hik Hasi duela 20 urte sortu zen, “ikusi genuen irakasle askok ordurako klaseak euskaraz ematen zituztela, baina irakasleek, orokorrean, gaztelaniaz jaso zutela formazioa, eta lanerako ere, gaztelaniazko ereduak erabiltzen zituztela. Horregatik, Hik Hasi aldizkariak eta hezitzaileei zuzendutako formazioak dira proiektuaren bizkarrezurra. Aldizkaria eskola guztietara bidaltzen da”.

Baina bestelako hutsuneak ikusi zituzten aurrerago. “Haurrek euskaraz ikasi, baina gaztelaniaz jolastzen zuten. Horrela, pixkanaka bestelako materiala ere sortu dugu: haurren jolas abestiak, bideoak, musika lantzeko programak, umee-kin lantzeko Sarrionandiaren ipuinak... Etxera eta aisialdira begirako produktua”.

Horrez gain, duela dozena bat urte beste hutsune bat ere sumatu zuten. “Ikusi genuen aldatzen ari zirela gizartea, familiak... eta gurasoek kezka asko izaten zituztela”. Horrela, Hazi Hezi aldizkaria sortu zuten, gurasoei zuzendua. “Ideia da eskolak, etxeak eta komunitateak (herria, aisialdia) ildo pedagogiko hezitzaile bera izatea”.



Arantzazu Muñoa eta Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko kideak.

“Gurasoei zuzendutako aldizkariak mundu anglosajoitik datozten ereduak kopiaitzen dituzte, eta Hazi Hezik hutsune hori bete nahi izan du, euskaraz”

HEZIKETA ETA HAZIERA, EUSKARAZ

Hazi Hezi aldizkariaren lau ale argitaratzen dituzte urtean. “Baziren gurasoei zuzendutako bestelako aldizkariak, baina guztiak erdaraz. Horietako askok mundu anglosajoitik datozten ereduak kopiaitzen dituzte, edo, kasurik onenean, eredu espainolak eta frantsesak hartzen dituzte kontuan. Hazi Hezik hutsune hori bete nahi izan du, euskarazko arloan. Aditu euskaldunekin jorratzen ditugu gaiak. Bitartekari lana egiten dugu aditu eta gurasoen artean, eta lantzen dira euskal ikuskera eta hezkuntza propioa batetik, eta pedagogia berritzailea zein heziketa aktiboa bestetik”.

Heziketa eta haziera hartzen dituzte kontuan. “Saiatzen ga-

ra haurrek beren garapenerako zein baliabide dituzten adierazten. Beren iniziatibaz jarduten duten haurrak ditugu buruan, haur autonomoak, sormendunak eta ekintzaileak. Azken batean, hauraren garapena, gurasotasuna eta heziketa izaten ditugu hizpide”.

ALE BEREZIA, 2016AN JAIOTAKOEI

Gurasoek izaten dituzten kezkei erantzuten saiatzen dira, eta ildo horretan, eta aldizkaria bera ezagutzera emateko, 2016an jaiotako haur gipuzkoarren etxeetara ale berezi bat bidaltzeko asmoa dago.

Hainbat gai landuko dira bertan: edoskitzea, mugimendu askea (umeen posturak ez behartzea), elikadura, zaintza, garbiketa, jolas askea, ingurunea eta natura, etxeko harremanak, familia mota desberdinak...

“Jolas askearen bitartez, segurtasuna lortzen dute haurrek, eta gainera, umek 8 urte ingurura arte, guztia ikasten dute jolasen bitartez. Inguru-nearekin eta naturarekin harremanetan, berriz, autonomia

“Etxeko transmisioak izugarritzko garrantzia dauka. Guraso askok gaztelaniaz egiten dute beraien artean, eta umea gutxietsuta sentitu daiteke”

lantzen dute; herriek askotan erritmo artifizialak ezartzen dituzte, eta naturan, berriz, egur puska batekin jolastu eta aukera dute sortzeko eta bakean ibiltzeko. Bestalde, familia mota desberdinak erakutsi nahi izan ditugu: sexu bereko bi kidek eta haurrak osatutako familia, bikotekiderik gabe ama izan denarena, kultura ezberdinetako bikoteek osatutakoa, aurretik beste haur bat zuen bikotekidearekin elkartu eta familia berria osatzen denarena... Errespetua landu dugu, jaiotzetik hil arte, euskaraz, eta beharrak landuz”.

EUSKARA, BALIO INPORTANTEA

Hik Hasik hainbat baliabide sortu ditu, heziketa eta haziera euskaraz eskaintzeko. “Baliabideak eta tresnak badaude

gaur egun. Guraso.eus eta Irrien Lagunak klubarekin ere harreman zuzena dugu RSS jarioaren bidez; gurasoentzako diren gaiak zuzen-zuzenean partekatzen ditugu. Aisialdira begira ere, lan handia egin dute Gipuzkoako Urtxintxak, Elkarrek, Ereinek... Orain aukera gehiago dago. Horregatik, hutsunea ikusten dugun horretan saiatzen gara, eta ez, bada, goena errepikatzen”.

Argitaratu duten azken produktua, adibidez, kontzentrazioa eta erlaxazioa lantzeko CD bat izan da, Marina Pintos piano-jole eta yoga irakaslearekin. Hau ere, noski, euskaraz.

“Euskara guretzat balio inportantea da. Hizkuntza transmisioak balio asko dauzka. Etxean jasotzen ez bada, eskolak laguntzen du. Baina biak inplikatzeko inportantea da, bestela, aldeko jarrera jaitsi egiten da. Eta hirugarren hanka, herria da. Eragin handiena etxeak dauka, baina behar du, baita ere, eskolaren laguntza, eta herriarena, aisialdiarena. Hala ere, etxeko transmisioak izugarritzko garrantzia dauka. Guraso askok elkarren artean gaztelaniaz egiten dute, eta ezinbestekoa da euskaraz aritzea. Umeek ikasten dute ikusten dutenetik, eta ez, esaten zaienetik. Umeak gutxietsuta sentitu daitezke ikustean gurasoak gai garrantzitsuen inguruan gaztelaniaz aritzen direla, eta berarekin, euskaraz. Balioa kentzen diote euskarari. Guk geuk, euskararen transmisioaren gaia familian, eskolan zein herrian lantzeari berebiziko garrantzia ematen diogu, eta behin baino gehiagotan idazten dugu gai horren inguruan, bai Hazi Hezin, bai Hik Hasin. Horren erakusle da, adibidez, Hazi Hezi aldizkariko kontsulten atalean gurasoek dituzten hizkuntzaren inguruko zalantza eta kezkek argitzera bideratutako atala”.



BURUNTZALDEA

Ardoain, Asligaraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdeta
eta Usurbilgo Udalek, Euskarake Batordeak

UMEENTZAKO HITZ GOXOAK

alolo joan: lotara joan
apapa joan: kalera joan
apatx(i) egin: eseri
arrekonkon: magalean hartuta,
zaldiz bezala aritzea
aupa: besoetara jasotzeko
bekeke: ardia
brun-brun: motorra, traktorea...
(zarata handiko automobila)
dantxa-dantxa: dantza egitea
enea: esnea
fu, fufu: sua
fufu egin: suari putz egin
kaxk: kolpea (buruarekin...)
kikak: hortzak
kixka-kixka: ilea moztea
(kokolo): txokolatea
kuku egin: ezkutatu
kurrin-kurrin: txerria
kukurruku: oilarra
lolo egin: lo egin

mama: ura
mañak egin: negar egin
max-max, mix-mix: katuari hots egiteko
mumua: aberea (behiak eta)
ninia: haur txikia
ñañan egin: jan
pa eman: musu eman
(papa): ogia
papo egin: ahitu, bukatu
pipi egin: pixa egin
pipia: txuria
pipiripi: oiloa
pittito: zakila
pitxiti: katua
pix-pix: pixaren hotsa
plixti-plaxta: uretan ibiltzea
popo: automobila
pottotta, potxotxina: alua (sexua)
punhala: erortzearen hotsa
pupua: mina
purruti: puzkerra

tax-tax egin: jo
trakatran-trakatran:
bizkarrean hartuta saltoka
ttaka-ttaka: oinez ibiltzea
ttatto egin: jaitsi (besoetatik, koskatik,
eskallerean behera...)
ttette: txupetea
ttilin-ttalan: kulunka, zabua
ttipi-ttapa: oinez ibiltzea
ttirrin: bizikletan // zilborra // txirrina
ttotto, ttottua, au-au-au: txakurra
txalo-txalo-txin: txalo jotzea
txantxi: jantzi
txista egin: ziztatu // sartu
(besoa mahukan...)
txista-txista: indizioa
txixia: haragia
xaxa: sagarra
xomorroa: zomorroa
zintz egin: mukiak kendu

Buruntzaldeko Udaletako Euskara Batzordeek osatutako hiztegia, umeen hizkera jasotzen duena.

“Etxeak du giltza” produktu sorta

Transmisioa, jaioberritatik

Buruntzaldeko Udalek haurrak jaio diren etxeetara bidaltzen dute material sorta bat, opari eta aholku izan nahi duena.

“Etxeak du giltza” deitutako produktu sorta bidaltzen dute Buruntzaldeko Udalek, haurra jaio den etxeetara. Asmoa da, zoriontzea, batetik, eta, bestetik, etxeak euskararen erabileran duen garrantziaz jabeaztea.

Material horretan, bidaltzen dituzte zorion gutuna, umeentzako hitz goxoak biltzen dituen hiztegitxoak, lo kantuak edota jolaserako doinuak biltzen dituen CDa eta autoan jartzeko pegatina. Buruntzaldeko 655 etxetara bidali da material hori 2014an.

Datorren urtean, ordea, aldizkari bat ere izango da tartean: Hazi Hezi aldizkariaren ale berezia, guraso izan berri direnei zuzendua. Horrez gain, hainbat Udalek asmoa azaldu dute Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza ere oparitzekoa, hala nahi duten gurasoei.

Honekin guztiarekin, Buruntzaldeko Udalek azpimarratu nahi dute haurren euskara erabileran familiak zer nolako pisua duen. Izan ere, kezkatzen dituen gaietako bat da, familia euskaldunetan ere, helduen artean, gaztelaniara jotzen dela maiz etxean, eta horrek uste baino ondorio kaltegarriagoak dituela haurren erabileran.



Buruntzaldeko Udalek euskarazko hainbat produktu bidaltzen dituzte haur jaioberrien etxeetara.



KIROL ALBISTEAK

Urnietako senior eta jubenil mailako eskubaloï taldeak

URNIETA 26 LEIZARAN 26

Senior mutilak. Sailkapena:

- | | |
|-------------|---------|
| 1. Donibane | 8 puntu |
| 2. Urnieta | 7 puntu |
| 8. Leizaran | 3 puntu |

Senior mutilak. 5. jardunaldia:

Leizaran-Eibar.
Urnietako-Ordizia.

Azken unean Urnieta Balerdi Harategiak Leizaranen aurka puntu bat eskuratzeko berdinketa lortu zuen, Allurraldeko kantxan. Larunbatean jokatu zen derbian urnietarrak ez ziren fin ibili, Jokin Jimenez eta Patxi Morandeiraren mutilak partida guztian zehar markagailuan atzean izan zirelako. Leizaranek bi aldiz sei goleko aldea eskuratu zuen, eta makina lan egin behar izan zuten aldea murrizteko. Leizaranen barne-jokoa partidaren gakoe-takoa izan zen, UKEkoek ez baitzuten aurkariaren lehenengo lineako jokalarien eta pibotearen arteko konexioa bertan behera uztea lortu.

Gorritxoaren partida amaiera bikainari esker, markagailuan bi gol azpitik jartzea lortu zuten bi minuturen faltan. Orduan, urnietarren aulkia Leizarango jokalariei presionatzea agindu eta partida 25 gola berdintzea lortu zuten; baina oraindik 40 segundo falta ziren eta etxekoek amaierarako 8 segundo falta zirenean gola sartzea lortu zuten. Eta dena galdua zirudienean, UKEkoek azkar atera zuten zelai erditik eta Gorka Vicentek andoaindarren defentsa

ustekabeen harrapatu eta 26 goleko berdinketa ezarri zuen. Poza nagusitu zen Andoainera bertaratu ziren urnietarren artean.

LEZO 26 URNIETA 20 Senior neskak

Neskek ez zuten hainbesteko zortea izan Lezon. Partida hasiera berdindu baten ostean, defentsan Lezoko zentrala defenditzeko arazoak izan zituzten eta horri erasoan egindako akatsei erantsita, etxekoek markagailuan alde egitea lortu zuten. Defentsan aldaketa baten ostean, lezotarren golen abantaila bi golera murriztea lortu zuten (11-9). Eta bigarren zatian urnietarrek partida berdintzea lortu arren, lehenengo zatiko akatsak errepikatu eta azkenean partida 26-20 galdu zuten. Lanean jarraitzea besterik ez zaie gelditzen hurrengo asteburuan Eibar Eskubaloïaren aurka etxean jokatuko duten partida prestatzeko.

JUBENILAK

Neskek gol bakarragatik galdu zuten Errenterian (19-20), eta jubenil mutilek 22-31 galdu zuten Legazpiko Karibe Zaharren aurka.

Jubenil mutilak. Sailkapena:

- | | |
|-------------------|----------|
| 1. Karibe Zaharra | 10 puntu |
| 4. Leizaran | 4 puntu |
| 8. Urnieta | 1 puntu |

Jubenil neskak. Sailkapena:

- | | |
|----------------|----------|
| 1. Aloña Mendi | 10 puntu |
| 5. Urnieta | 6 puntu |
| 6. Leizaran | 4 puntu |

Emaitzak gomazko paletan eta pala motzean

Paleta goma, seniorrrak:
Urnietako 19-25 Usurbil
Iban Barrutia-Xabier Pavón.
Urnietako 13-25 Zestoa
Jon Iruretagoiena-Xabier Perez.
Batzokiko 25-18 Urnieta
Jon Iturbe-Unai Arozena

Pala motza, seniorrrak:
Txost 39-40 Urnieta
Xabier Amantegi-Mikel Jauregi.
Urnietako 40-21 Urnieta
Julen Beñat vs. Jon-Unai.



Unai Arozena eta Jon Iturbe.

Ontzerri taldearen agurra, esker ona adieraziz

“Agur eta mila esker”

Postontzia: Ontzerri

“2010eko udaberrian Lanbroa tabernako solasaldi amaigabe-etan, lau ero futbolari buruz hitz egiten, eta bat-batean... futbol talde bat osatzen badugu? Solasaldi hori izan zen Ontzerri F.K.T-ren hasia. Hortik aurrera, bertan elkartzen ginen gazte koadrila eta ez hain gazte koadrila ezberdinei luzatu zitzaizen ideia, eta harre-ra ezin hobea izan zuenez, ideiarekin aurrera jarraitzea erabaki genuen. 30 mutil inguru elkartu ginen, koadrila ezberdinetakoak, adin ezberdinetakoak. Guztiok kirola giro onean egin eta Andoainen giro ederra sortzeko ilusioak batu gintuen. Hasiera oso gogorra izan zen, fisikoki eta "administratiboki". Bazegoen jendea, azken urteetan futbola eta kirola utziak zituenak, baina gogor prestatu eta futbol talde itxurosoa egitea lortu genuen. Erbesteratuta hasi ginen futbolera jokatzeko, baina zorionez gauzak zuzendu eta arrazoia inposatu zen. Eta egia esan, gai honek ez du merezi gehiago luzatzerik. "Ezina ekinez egina" izan zen gure leloa, eta azkenean guztion artean proiektua martxan jartzea lortu genuen. Luzatzea merezi ez duen arren, Andoainen jokatzea ahalbideratu zuen udal taldeei gure esker ona adierazi nahi genieke.

Hasiera gogor hori gairatzea, ezin da ulertu zaletuen eta babesleen papera aipatu gabe. Izugarritzeko babesak jaso genuen Andoaingo jende askoren gandik. Makina bat kamise-



Ontzerri taldeko kideak, Gipuzkoako Kopa lortu zuteneko argazkia.

“Futbolak gu utzi beharrean, gure erabaki dugu futbola uztea”

ta eta material erosi ziguten proiektuak aurrera egin zezan. Partidatan, bai etxean eta bai kanpoan, babesak eta animoak ematen zizkiguten eta urte hauetan ondoan izan dira beti. Eta babesleei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Askorengana gu joan ginen diru eske, baina taberna eta enpresa asko etorri ziren beraien ekarpena eskainiz. Guztiei mila esker. Hitzek soilik eskerrak ematea motz geratzen da, baina hala ere, eskerrik asko!!

Bost urte hauetan bete dugun paperaz benetan harro gaude. Besteak beste, igoera fasea jokatzea iritsi ginen, gure mailako Gipuzkoako Kopako finalistak izan ginen urte batean, eta hurrengoan, harrotasunez esan dezakegu, Gipuzkoako Kopako txapeldun izatera iritsi ginela.

Kirola soilik ez da izan Ontzerriren funtsa. Besteak beste, Andoaingo Pilota Eskolarekin batera, Andoainen hain beha-

rrezkoa ikusten genuen Gargardo Azoka martxan jarri genuen, oso harrera onarekin. Oso pozik gaude alde horretatik ere.

Talde sortu genuenean, 2010ean, bagenekien irautitze data 4-5 urteetakoak izan zitekeela. Familiaren arduratu, lana, lesioak... Tantaka-tantaka hasierako jendea futbola uztera behartzen joan da, baina jende berria sartu izan da urtero, eta guztien artean lortu dugu proiektu hau aurrera eramatea. Bejondeizuela guztiei!!!

2015 urtea iritsi da eta erabaki bat hartu dugu. Hainbeste lagun eta poztasun eman dizkigun futbol taldea desegiteko erabakia hartu dugu. Futbolak gu utzi beharrean, gure erabaki dugu futbola uztea. 2010 urtean festa giroan kaleratu zen Ontzerri F.K.T., eta 2015ean, kalean eta festa giroan, egindako lanarekin harro eta pozik, desegingo da Ontzerri F.K.T.

Soilik geratzen zaiguna hau da: Mila esker bihotz bihotzez "amets ero" hau posible egin duen jende guztiari, Agur eta gora Ontzerri FKT!!”.

Futbol emaitzak

ERREGIONAL OHOREZKOA

8. jardunaldia:

Euskalduna 0-3 Hernani

Sailkapena:

- | | |
|---------------|----------|
| 1. Tolosa | 21 puntu |
| 2. Anaitasuna | 17 puntu |
| 4. Euskalduna | 14 puntu |

9. jardunaldia:

Euskalduna-Mutriku

Azaroak 7. 17:45.

PREFERENTE MUTILAK

7. jardunaldia:

Mariño 1-1 Urnieta

Sailkapena:

- | | |
|------------------|----------|
| 1. Sanpedrotarra | 18 puntu |
| 2. Baskonia | 17 puntu |
| 5. Urnieta | 12 puntu |

8. jardunaldia:

Urnietako-Dunboa

Azaroak 7. 16:00.

ERREGIONALA NESKAK

6. jardunaldia:

Urnietako 5-0 Beti Gazte

Sailkapena:

- | | |
|--------------|----------|
| 1. Urnieta | 18 puntu |
| 2. Allerru | 11 puntu |
| 3. Intxaurdi | 9 puntu |

7. jardunaldia:

Allerru-Urnietako

Azaroak 7. 19:00.



KIROL ALBISTEAK



Patinatzaileak ere Behobiara begira lanean

Behobia-Donostia lasterketaren 51. edizioa igande honetan izango da, luzaz Gipuzkoan egiten den ezagunena. 34.000 lasterkari daude izena emanda, goizeko 10:00etan hasita hiribururako bidea hartuko dutenak. Ordu erdi lehenago gurgildun aulkietan irteten diren kirolarien txanda izango da. Azken urteetan indarra hartzen ari diren patinatzaileak 09:35etan irtengo dira.

Urrian bide guztiak korrikalariz betetzen diren bezala, Behobia-Donostia lasterketa ezagunak beste protagonista batzuk biltzen ditu bere baitan: Irristalari edo patinatzaileak. Indarra hartzen ari kirol jarduera hori, eta tartean andoaindarrak badira. 2010 urtean Behobiako lasterketan patinatzaileak agertu ziren, eta orduz geroztik egutegiko proba garrantzitsuenetakoa bihurtu da. Aitzol Zuriarrain andoaindarra Irristakako patinatzailea da eta aurreko bost ediziotan parte hartu du. Lasterketak duen oihartzuna ikaragarria da bere ustean, "jende askok abiadurazko patinaiairen ezagutza Behobia-Donostia probari esker izan du". Goruntz doan kirol jarduera da, gainera. Orain bi aste Donostiako 15 kilometroko klasikan 440 patinatzaile irten zen eta Gasteizko maratoiaren patinatzaileei gordetako 500 dortsalak agortu egin ziren. Igandean Behobiako irteeran 250 patinatzaile espero dituzte. Ez da probarik jendetsuena, azaroan ia gehienetan lurzorua



Irristaka taldeko kideak Ubitateko atletismo pistan, aurreko egunetan.

"Jende askok abiadurazko patinaiairen ezagutza Behobia-Donostia probari esker izan du"
Aitzol Zuriarrain

"Andoaingo patinatzaileok kriston pagotsa dugu Ubitarteko atletismo pistarekin"
Igor Otaegi

bustita egoten delako. Bustian aritzea ez da hain atsegina izaten patinatzearentzat. Eta ez da ahaztu behar Behobia-Donostia lasterkearen ibilbidea gorabeheraz beterik dagoela. Teknikoki maila handixeagoa eskatzen duen lasterketa da, beraz.

UBITARTEKO PISTA

Igandeko probari begira, aurreko egunetan patinatzaile batzuk Ubitarte futbol zelaiko atletismo pistan prestaketa lanetan aritu dira. Igor Otaegi Irristakako kideak adierazi duenez, "autoez kezkatu gabe ibili ahal izateak entrenamen-

duan eta teknikan murgiltzeko aukera ematen digu. Alde horretatik andoaindarrok izugarrizko pagotsa dugu Ubitarteko atletismo pistarekin. Gipuzkoako 400 metroko breazko pista bakarra izango da, beharbada ez da lasterkarientzat hain egokia izango, baina patinatzaileontzat benetan aproposa da". Igande honetan, Igor Otaegi eta Aitzol Zuriarrainekin batera, Harkaitz Labeaga eta Iñigo Aginaga Andoaingo beste bi kirolariak ere Behobiako irteeran izango dira Irristakako kolore gorriak defendatuz.

Ganbara saski taldea

ASKATUAK 27-84 GANBARA SenM Partida erraza taldearentzat, defentsa ona eta azkar erasotuz jokaturakoa.
GANBARA InfM 67-16 ALDAPETA Garaipena lehen zatian lortu

zuten, markagailuan alde handia atera baitzuten.
EASO 56-44 GANBARA JubM
ASTEBURUAN ANDOAINEN GANBARA SenM-ALDE ZAHARRA Larunbata, 7. 19:15 Allurralde.

Areto futbol txapelketa

5. JARDUNALDIA

Aure Maiton 1-0 Pausoka
Ondarreta 8- 5 Bar Egur Urnieta
Drink Team 0-11 Ekhia
Bar Txalaka 5-2 Ekaitz
Dad Kutxa 7-3 OZz Uefa
C.Extremeño 9-3 Hogar Extremeño
Keler 1-13 Academia G.F

Aure Martin-DAD Kutxa 15:45. Ondarreta.
C.Extremeño-Academia GF 15:45. Ondarreta.
Azaroak 8, igandea
Ekaitz-C.Extremeño 09:15. Allurralde.
Egur Urnieta-Txalaka 09:00. Arrate.
Ekhia-Ondarreta 10:00. Arrate.
OZ UEFA-Drink Team 11:00. Arrate.
Pausoka-Academia GF 12:00. Arrate.

SAILKAPENA

1. Aure Maiton 15
2. Keler 12
3. DAD Kutxa 10

6. JARDUNALDIA

Azaroak 7, larunbata
Hogar Extremeño-Keler 14:30. Allurralde.

GOLEATZAILEAK

1. Urtzi Azpiroz (Keler) 17 gol.

Gau olinpiadak Gaztetxean



Azaroan Gaztetxeak urteurrena ospatu ohi du, eta aurreko urteurrena ospatzen duten hilabete berean, "Gauolinpiadak" burutuko dituzte. "Koadrilen arteko jokoak eginenez, lagunartean eta lehiaren gaitetik, herriko gazteen arteko topaketa bultzatzea helburu dugu", diote antolatzaileek. Azaroaren 1a bitarte zegoen izena emateko aukera eta 22 taldek eman du parte hartzeko izena.

Taldeak 2-4 lagun bitartekoak dira eta hiru ostiraletan jarraian 22:30etik 00:30era jarduera ezberdinetan arituko dira.

Iragarri duten egitaraua honakoa da:

- Azaroak 06. Futbolina.
- Azaroak 13. Mahai tenisa.
- Azaroak 20. Dardoak.
- Azaroak 27. Finalak.

Gauolinpiaden azken egunean sari-banaketa ekitaldia egingo dute.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-RURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larumendi
Kultur Nazakoa

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOANGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba
Lizeaga, Izarne Olano
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 5ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **Los miercoles no existen.**
Larunbata, 7. 19:30/22:00.
Igandea, 8. 21:30.
Astlehena, 9. 19:30/22:00.
Haurrentzat:
Pan, viaje a nunca jamás.
Larunbata, 7. 17:00.
Igandea, 8. 17:00.

Urnieta, Sarobe

- **Etxe magikoa**, euskaraz.
Bi saio: 16:00, 18:30.
Azaroak 8, igandea.
- Datorren asteburuan:
Paddington.
Bi saio: 16:00, 18:30.
Azaroak 15, igandea.

Sariketa

Andoain, Bastero

- XIX. Martin Ugalde ipuin
lehiaketa, sari-banaketa
ekitaldia.
18:30. Ekitaldi aretoa.
Azaroak 11, asteazkena.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak.
Andoain:
Zatarain, asteburu osoa.
- Urnieta:**
Hernaniko Chucla,
asteburu osoa.
- Eskualdea, gauzez:**
Etxebeste.
Elkano, 9. Hernani.

Ikuskizuna

Andoain, Bastero

- Toom Pak konpainiaren es-
kutik, birziklatutako ele-
mentuekin egindako ikuski-
zuna. Nagusiki, perkusio
jaialdia.
Azaroak 6, ostirala. 21:30.

Erakusketak

Andoain, Bastero

- **“Bizibideak”**, Gartxot Arre-
giren eskutik.
Azaroaren 14ra arte.
- **“400 txokotatik euskarara”**,
Andoaingo migrazioaren
inguruko erakusketa.
Azaroaren 20tik aurrera.

Urteurrena

Andoain

- Gazte Lokalaren XV. urteu-
rreneko ospakizunak:
Talo tailerra.
Azaroak 13, ostirala. 17:00.
Txuri urdinera irteera.
Azaroak 14, larunbata.
- Merienda**
Azaroak 15, igandea. 17:30.

Lehiaketa

Andoain

- “Andoain laburrean”, eus-
kal film lehiaketa.
Oinarriak andoainda-
rrak400.eus webgunean.
Aurkezteko epea:
Azaroak 13, ostirala.

Deialdia

Andoain

- 1959an jaiotakoen bazka-
ria. Azaroaren 18a baino
lehen eman behar da izena,
60 euroko diru-sarrerara egi-
nez Kutzako 2095 5022 18
1060843686 kontu-korron-
te zenbakian. Frogagiria
Urkiola tabernan utzi behar
da. 14:00ak aldera Txerto-
tan bertan elkartzeko gera-
tu dira taldeko argazkia
ateratzeko.
14:30. Txertota.
Azaroak 21, larunbata.

Musika

Andoain, Bastero

- **“Andoaindarrok egina, Ando-
ainen entzuna”** disko bikoi-
tzaren aurkezpen ekital-
diak.
Diskoen aurkezpena, age-
rraldia parte hartzaileekin.
19:00. Ekitaldi aretoa.
Azaroak 6, ostirala.
Kontzertua, herriko musika
taldeekin.
12:30. Auditorioa.
Azaroak 22, igandea.

Inaugurazioa

Andoain

- Muralaren irekiera ekital-
dia, herriko artistek elka-
rrekin landutakoa.
12:00. Agustin Leitza kalea.
Azaroak 7, larunbata.


ZORION AGURRAK

ZORIONAK




Azaroaren 5ean
Naroak 10 urte
bete ditu. Zorio-
nak gure etxe-
ko printzesa!!!
Mila muxu aita-
txo eta amatxo-
ren parterik.
Maite zaitugu.
URNIETA

ZORIONAK



Urriaren 23an
Maddi Nuño
Oartzabalek 6
urte bete zituen.
Zorionak Maddi!
Ondo pasa
zenuelakoan.
Muxu handi bat!!
Etxekoak.
ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 28an
Anek bere lehe-
nengo urtea
bete zuen.
Zorionak etxeko
sorgin txikiari!
Aitaxo, amatxo
eta Oier.
ANDOAIN

ZORIONAK



Orain artean
bezala, seiga-
rren urtebete-
tzetik aurrera
ere zure ezpai-
netan kantarik
ez dadila falta.
Gozatu **Intza!**
ANDOAIN

MERKATU TXIKIA

- Zaintzaile bat behar da Andoainen orduka lan egiteko. 605 341 108.
- Hizkuntza eskolako irakasleak frantsez eskolak eskaintzen ditu baxi-
lergoko ikasleentzat, asteburuetan frantses azterketak prestatzeko.
665 719 827 - 943 008 059.

Matrikulazioa Galardin

Galardi Udal haur eskolako matrikulatze kanpaina mar-
txan dago 2015-16 ikastur-
terako. 2016ko urtariletik
maiatza bitartean hasteko
deialdia egin dute 0-1 eta 1-
2 taldeetarako.
• Matrikulatzeko epea:
Azaroaren 23tik abendua-
ren 4ra, biak barne.

- Ordutegia:
10:00-13:00, 16:30-19:30.
- Argibideak: Bastero.
943 303 540.
- Ate irekiera:
Azaroaren 23an eta 30ean,
16:30ean eta 17:30ean.
- Galardi Udal haur eskola:
Extremadura kalea 6. 943
300 655.

Osasun publikoaren alde

TOPA elkarteak larunbat ho-
netarako –azaroak 7– ekital-
dia antolatu du Tolosako
Triangulo plazan, eguerdiko
12:00etatik aurrera. Bertara-
tzeko deia luzatu dute. Egun
hauetan gainera, 83 osasun
langilek idatzi bat argitaratu
dute, Asuntzion Klinikaren
publikazioa eskatuz, “Tolo-
saldeko herritarrok Euskadi-

ko gainerako eskualdeetako
herritarren antzeko arreta ja-
sotzeko, eskualdeak ezinbes-
tean baldintza hauek bete be-
harko ditu: Kudeaketa publi-
koa duen eskualde-ospitale
publiko bat (Asuntzion klini-
karen publikazioa) eta espe-
zialitateen anbulatorio bat
izatea, behar bezala hornitu-
ta eta osatuta”.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA AZAROAREN 12AN ARGITARATUKO DA

NOAUA!ren KULTURALDIA 2015
Usurbilen azaroaren 6tik 15era

azaroak 6, OSTIRALA KONTZERTUA
“N. Urkizaketa” Sotomayor Sotomayor

azaroak 8, IGANDEA ZINEMA
“Pikadero”

azaroak 9tik 15era ERAKUSKETA
“LALALA” Joxe Mari Larrea, Mikel Arregi

azaroak 12, OSTEGUNA HITZALDIA
“Ezkerreko aldea” Mikel Arregi

azaroak 13, OSTIRALA BERTSO-AFARIA
Zorion Agurra

azaroak 14, LARUNBATA ANTZERKIA
“Arreola” Sotomayor Sotomayor

azaroak 15, IGANDEA IBILALDIA
Mikel Arregi

NOAUA!